

Bergarako Udalaren eta Jardun euskara elkartearen arteko hitzarmena, *BERRIKETAN* programa diruz laguntzekoa

Bergaran, bi mila eta hogeita bateko urriaren 8an

BILDU DIRA

Gorka Artola Alberdi jauna, Bergarako Udaleko alkatea, Bergarako Udalaren ordezkartzan.

Eta bestetik, Miren Etxeberria Jauregi andrea, Jardun kultur elkarteko lehendakaria, elkarte horren izenean. Azken honek alkate jaunaren aurrean zinpean aitortu du bera eta berak ordezkatzeko duen elkarte ez daudela Estatuaren 2003ko azaroaren 17ko 38/2003 Legeak aurreikusitako debeku kasuetan.


Bi aldeek elkarri aitortzen diote ordezkatzeko duten entitatea ordezkatzeko eta behartzeko gaitasuna eta, hala, honakoa

ADIERAZI DUTE

- 1.- Jardunek Bergarako Udal Euskaltegiarekin lankidetzan eta Bergarako Udalak diruz lagunduta, euskaldunberriei euskaraz egiteko guneak eskaintzeko, *BERRIKETAN* izeneko programa garatzen diharduela azken urteetan.
- 2.- Izandako esperientziaren balorazio positiboa egin dela kontuan hartuta, programari jarraipena ematea erabaki dela eta Jardunek diru-laguntza eskatu diola Udalari (eranskinean aurrekontua).
- 3.- Proiektu hori garatzea interesgarria delakoan, Udalak, Alkateak 2021eko urriaren 7an emandako Dekretu baten bitartez, diru-laguntza eman eta bi aldeek betebeharrak hitzarmen batean jasotzea erabaki duela.


Hala, beraz, bi aldeek honako klausulak dituen hitzarmena egitea onartu dute:

KLAUSULAK



LEHENENGOA: Jardun euskara elkarteak aurkeztu duen txostenean (hitzarmen honen eranskinean laburtuta) agertzen diren ezaugarriak dituen ***BERRIKETAN* programa bideratuko du 2021eko irailaren 1etik 2022ko abuztuaren 31ra bitartean.**

BIGARRENA: Bergarako Udalak **14.865,00 euroko diru-laguntza** emango dio proiektu hori burutzeko Jardun euskara elkarteari.



Diru-laguntza hori 3 zatitan emango da, era honetan: hitzarmena sinatzean %30; 2022ko otsailean %30 eta 2022eko irailean beste %40. Azkeneko zatia ordaintzeko, aurrez ekintzaren memoria, balantze ekonomikoa eta gastuen zuri-egiriak aurkeztu beharko dira.



HIRUGARRENA: Horretaz gain, Jardun euskara elkarteak honako konpromisoak hartzen ditu:

- a) Udal Euskaltegiarekin eta Euskara Zerbitzuarekin batera parte hartze aktiboa izango du Euskalduntzeari buruzko lantaldean antolatzen diren ekitaldietan parte hartuz, bertatik sortutako proiektuen jarraipena eginez, proposamenak eginez...
- b) Ekintzaren gaineko zabalkunde-oharretan Bergarako Udalaren laguntza jaso izana adieraziko du.
- c) Gizarte Segurantzarekiko, Foru Ogasunarekiko eta Bergarako Udalarekiko ordainketetan egunean dagoela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko ditu.
- d) Bergarako Udalaren aurrean ziurtatu beharko du baldintza guztiak betetzen dituela, hala nola, diru-laguntza jasotzen duen zerbitzuaren jarduera eta helburua betetzen direla.
- e) Udalak egin litzakeen ikuskapenak erraztuko ditu.
- f) Bergarako Udala jakinaren gainean jarriko du baldin eta Udalak diruz laguntzen duen jarduerarako beste diru-laguntzarik lortuz gero. Beste diru-laguntzaren bat jasoko dela jakin bezain azkar jakinarazi behar zaio Udalari, eta, betiere, azken zatia ordaindu baino lehen.
- g) Gutxienez bost urtez gordeko ditu jasotako diruari eman zaion erabilera agertzen duten agiri originalak.

LAUGARRENA: Udalak emango duen diru-laguntzaz gain helburu bera duen beste edozein diru-laguntza ere jaso daiteke. Hala eta guztiz ere, diru-laguntzak (Udalarenak bakarrik edo beste batzuenekin batuta) ezingo du inolaz ere altuagoa izan diruz laguntzen den jardueraren kostua baino.

BOSGARRENA: Diru-laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetakoren bat aldatuko balitz, edo Udalarenaz gain beste administrazio batek edo entitate pribatu edo publiko batek emandakoa jasoko balitz, gerta liteke emandako kopurua aldatzea.

SEIGARRENA: Diru-laguntza berrikusi egingo da eta, egoki bada, kendu, baldin eta hauetakoren bat gertatzen bada:

- a) Diru-laguntza bete beharreko baldintzak bete gabe jasotzea.
- b) Diru-laguntza erabiltzea lortu beharreko helburua ez den beste helburu baterako.

Edozein arrazoiengatik, diru-laguntza (osoa edo zati bat) itzuli beharra balego, diru kopuru hori zuzenbide publikoko sarreratzat hartuko da.



ZAZPIGARRENA: Hitzarmen honetan aurreikusita ez dagoen guztian, diru-laguntzak arautzen dituen 38/2003 Estatuko Legea, azaroaren 17koa, eta lege hau garatzen duen erregelamendua, 2006ko uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bitartez onartua, aplikatuko dira.

Eta horrela jasota gera dadin, dokumentu honetako edukiarekin adostasuna azalduz eta leial betetzeko konpromisoa hartuta, goian aipatutako toki eta egunean bikoiztuta sinatzen dute.

Miren Etxeberria Jauregi
Jardun euskara elkarteko presidentea

Gorka Artola Alberdi
Begarako alkatea

ERANSKINA:

Berriketan 2021-2022

Hainbat urte dira Jardun Euskara elkarteak, udalarekin lankidetzan, euskara maila apalekoei euskaraz jarduteko aukerak zabaltzeko Berriketan programa abian jarri zuela. Programan euskaraz ondo dakitenak (borondatez parte hartzen dutenak) euskara maila apala dutenekin elkartzen dira euskaraz egiteko. Azken urteetan, batez beste, euskara maila apaleko 40-45 bat lagunek hartzen dute parte euskaraz ondo moldatzen diren 12-15 lagunekin batera, 3-4 laguneko taldeetan banatuta. Horretaz gain, 2020-21ean, hitanoa praktikatzeko talde bat ere izan da.

Horiek guztiak herri mailako talde arruntetan dabilzanak dira. Horietaz aparte, Udaleko Euskara Zerbitzuarekin batera Udaleko "Obra eta Zerbitzuak" saileko langileekin ahoz euskara sustatzeko egiten diren sentiberatze-bileretan ere parte hartzen du Jardunek.

2021-2022 ikasturtera begira, funtsean, aurreko urteetatik martxan dauden asteroko berba-lagun taldeak dinamizatzen jarraitzea eta talde berriak osatzen jarraitzea planteatzen da.

Era berean, aurreko urteetan bezala, taldeetatik kanpoko euskarazko harremanak bultzatzeko irteerak antolatuko dira, batzuetan Bergara mailakoak (euren ingurukoak ere gonbidatuta) eta beste batzuetan bailarakoak eta urtean behin "Mintzalagun" eguna.

Bestalde, multzo edo helburu jakinetarako ekimenak ere bultzatuko dira: Hika praktikatzeko taldeak, gurasoen artekoak, gazteen artekoak, ...

Aurrekontuari dagokionez, 14.865 eurokoa da, iaz baino 15 euro handiagoa.

BERRIKETAN	
2021-2022 IKASTURTERAKO BEHIN BEHINEKO AURREKONTUA	
(2021eko irailaren 1etik 2022ko abuztuaren 31ra)	
GASTUAK	ZENBATEKOA
PERTSONAL GASTUA (egunean 3 ordu)	13.040
IRTEERAK	200,00
ZABALPENA (Topagunea, Berriketan, Gurasolagun...)	250,00
OPARIAK (ikasturte bukaerako oparia, tribialaren irabazleentzat oparia...)	200,00
BESTE GASTU BATZUK	1.175,00
GUZTIRA:	14.865,00 €

